



GETARIAKO TXAKOLINA IBILBIDEAK

3. Ibilbidea: Ibai-Eder Urtegia. Nuarbe-Illarraldea (Ibilbide zirkularra)

Getariako Txakolina JDko hirugarren ibilbidean, kostaldetik Gipuzkoako barnealderantz joango gara, Azpeitia eta Beizama aldera, zuzenean Nuarbe eta Illarraldea auzoetara, Ibai-Eder urtegia dagoen lekura. Naturan murgiltzeko, deskonektatzeko eta gure Getariako Txakolina ekoizten den lurraldea dastatzeko gonbidapena.

3. Ibilbidea: Ibai - Eder Urtegia, Nuarbe-Illarraldea auzoak (Ibilbide zirkularra).

Getariako Txakolina ibilbideak ataleko 3. ibilbidea egitera Gipuzkoako kostaldetik barnealdera joango gara, Azpeitiako eta Beizamako lurretara, Nuarbe eta Illarraldea auzoetara hain zuzen, hantxe bait dago kokatua Ibai-Eder Urtegia. Ibilbide zirkular honek 8'20 km neurtzen ditu eta urtegiari buelta ematen pasako dugun denbora 2 ordu izango dira gutxi gorabehera. Urtegiara iristeko Azpeitiatik Beasain aldera doan GI-22635 errepidea hartuko dugu; Nuarbe auzoa pasa eta 1'7 kilometrotara dago kokatua 1991. urtean eraikitako eta Urola kostako, Beheko eta Erdiko 68.000 biztanle zerbitzatzen dituen urtegi eder hau.

Eta norbaitek galdetu dezake: zer egiten du Getariako Txakolina JDrak ibilbide honetan? Ba erantzuna hauxe da: Beizamako Illarraldea auzoan dago kokatua Getariako Txakolina JDrak inskribatua dagoen Urkizahar upategia; Txakolin ekologikoa elaboratzen du eta upategia bisitagarria da ([Ikusi Getariako Txakolina JDrako upategi bisitagarriak](#))

Urtegiara iristen garenean “Oinezkoentzako bidea” jartzen duen kartel bat ikusiko dugu eta bidexkan sartuko gara. Ibilbidea laua da eta ez dauka inolako zailtasunik; adin guztietako pertsonak egin dezakete (zahar, gazte, umeak). Nahi izanez gero bizikletan ere egin daiteke buelta. Paseoan zehar zurezko eserlekuak daude eta baita Itaun izeneko iturria ere, bide zaharra eta berria bereizten dituen zubiaren parean, puntu egokiak beharrezko deskantsuak egiteko.

Ibilbideak neurtzen dituen 8´20 km egin eta gero guk ibilbideari jarraipena emango diogu, urtegitik Beizamako Illarraldea auzora igoko gara Urkizahar upategia bisitatzerara. Pare bat kilometro egin beharko ditugu oinez terreno aldapatsu batetik baina pena merezi du, gainera, bertara iristean zoragarritzko bistekin topatuko gara.

Ibilbide hau egin eta gero ez geratu ikusi gabe:

[Trenbidearen Euskal Museoa](#) (Azpeitia) eta [Ekaingo Kobazuloaren Erreplika](#) (Zestoa)

Más información:

[Clica aquí para Ver la Ruta en Google Maps](#)

[Ver bodegas visitables de Getariako Txakolina](#)



ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO



Unión Europea
Fondo Europeo Agrícola
de Desarrollo Rural
Europa invierte en las zonas rurales

Getariako Txakolina D.O.

Aldamar parkea, 4 behea.

20808 Getaria (Gipuzkoa)

Tel.: 943 14 03 83

info@getariakotxakolina.eus

www.getariakotxakolina.eus